

EGOERAREN AZTERKETA

141. zenbakia | 2021eko urria

EGOERA SOZIAL ETA EKONOMIKOAREN AZTERKETA

Aurreikusitakoa baino hazkunde txikiagoa eta ziurgabetasunez betetako udazkena

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

ELA
EUSKAL SINDIKATUA



MANU ROBLES-ARANGIZ
FUNDAZIOA

AURKIBIDEA

1. Ingurune ekonomikoa 4

1.1. Europa 5

2. Enpleguaren adierazleak 7

2.1. Biztanleria enplegatua 7

2.2. Kontratuak 8

2.3. ABEEek 9

2.4. Langabezia 10

2.5. Biztanleria gaztea 10

2.6. Europa 11

PUNTAKO GAIA:

Pentsioen erreforman murrizketarik ez egiteko, ez BEM onartzea eskatu die ELAk EAJri, EH Bilduri eta Podemosi 13

ERABILITAKO SIGLAK

| | |
|------|--|
| HEH | Hego Euskal Herria |
| EAE | Euskal Autonomia Erkidegoa |
| EB | Europar Batasuna |
| BPG | Barne produktu gordina |
| EEZP | Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa |
| ABEE | Aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak |
| EIN | Estatistika Institutu Nazionala |
| AEB | Amerikako Estatu Batuak |
| NBE | Nazio Batuen Erakundea |
| IPCC | Klima Aldaketari buruzko Adituen Gobernu Arteko Taldea |
| EBZ | Europako Banku Zentrala |
| KPI | Kontsumo Prezio Indizea |
| ELGA | Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundea |

EGOERAREN AZTERKETA

SARRERA

Udazken honetan zenbait arazo aurkezten zaizkigu eremu sozialean zein ekonomikoan. Lehenari dagokionez, datozen asteetan erabakiko diren hainbat kontuk langile-klaseari zuzenean eragingo diete, esaterako pentsioen erreformak, eragin soziala duten auziak -argindarraren prezioa eta alokairuak-edota lan erreformaren negoziazioak. Eremu ekonomikoan, berriz, ziurgabetasuna da nagusi; egia da adierazleak pixka bat hobeak direla, nolabaiteko irekiera gertatu delako eta pandemiaren aurkako neurriak arindu direlako txertaketari esker. Alabaina, suspertzea asimetrikoa da oraingoz, eta faktore ugariaren ondorioz ez da erraza epe laburreko agertokiari buruz baikorrak izatea.

Txosten hau hiru ataletan banatu dugu. Lehenengoan, datorkigun agertoki berriaren zertzelada batzuk aztertuko ditugu eta adierazle ekonomikoak erreparatuko dira. Bigarrenean enpleguaren datuei erreparatuko diegu. Azkenik, hileko gai bezala, pentsioen erreformaren inguruko hainbat kontu erreparatuko dira.

* Txosten hau 2020ko urriaren 18an eguneraturiko informazioarekin burutua izan da

Manu Robles-Arangiz Institutua
@mrfundazioa
www.mrfundazioa.eus
Bilbo. 2021eko urria

1.

Ingurune ekonomikoa

Agintari batzuek tematu arren ingurunea kolore ederrez pintatzen, zenbait aldagai kontutan izanez gero ez dirudi etorkizuna hain oparoa izango denik. Hain zuzen, tentuz analizatu behar da egungo testuinguru ekonomikoa; horretarako munduko testuinguru ekonomikoa aztertuko dugu gainetik, eta ondoren gurera etorriko gara, izan ere, Hego Euskal Herriko errealitate sozioekonomikoa ulertzeko ezinbestekoa baita nazioarteko agertokiari begiratzea.

Herialderik aberatsenak pandemia osteko egoeran daude, baina egoera honek ez du zerikusi handirik Covid-19a agertu aurrekoarekin; izan ere, pandemiak sistema ekonomiko-sozial guztiaren eraldaketa azkartu baitu. Ondoren errealitate berri honen ezaugarri batzuk aipatuko ditugu:

- a) Kapitalismoa fase berri batean sartu da eta 4.0 iraultza industrial da honetako protagonista. Aldi berri honekin erantzuna eman nahi diote aspaldiko urteetan enpresen etekin tasak eta produktibitateak izan duten gainbeherari. Kapitalak ekoizpen sistemaren aldaketa behar zuen mozkinak gehitu eta, horren bidez, metaketa areagotzeko. Horrela sortu dira digitalizazioa, automatizazioa eta robotizazioa, hots, giza-kapitalaren ordezkioak direnak. Eta honela ari dira teknologiak geroz eta garrantzi handiagoa hartzen ekoizpen katean. Honek guztiak, noski, zuzeneko eragina du enpleguan.
- b) Aintzat hartu beharreko beste kontu bat da globalizazioaren krisia. Pandemiak agerian utzi ditu sistema kapitalistaren ahulezia ugari, ekoizpen sisteman zein bizitzaren beste eremu batzuetan. Urtetan aplikatu izan ziren politikak medio ekoizpena deslokalizatu zuten eta Mendebaldean industria estrategikoak galdu ziren. Honek etekinaren aldetik estrategia egokia zirudien, baina luzera kalterako izan da. Izan ere, politika horien ondorioa gaur hasi baita antzematen: milaka kilometrora kokatutako hornitzaileekiko menpekotasuna erabatekoa da. Horren adibide, pandemia hasieran material sanitarioa lortzeko pairatu ziren gabeziak, edota berriki bizitako horniduren krisia.
- c) Hirugarren auzia da, 2008ko krisian ez bezala, erakundeek nolabaiteko neokeynesianismoz erantzun dutela: gastu publikoa handituz eta

austeritate-arauak aldi baterako bertan behera utziz. Halere, rol berri honek ez du inola ere auziaren mamia aldatu, inbertsio publiko handiagoarekin ez baitira berez langile-klasearen baldintza materialak hobetzen. Hots, estatuak “zerbait” eginagatik ere, horrek ez du esan nahi Ongizate Estatura itzultzen denik. Benetan analizatu beharrekoa da inbertsio hori nori zuzenduta dagoen eta noren onerako den; honez gero argi dago korporazio handiek izango dutela onurarik handiena. Beraz, politika berri honen helburua, lehenago bezalaxe, indarrean den sistemaren iraupena bermatzea da.

- d) Lehendik iragarrita zegoen energiaren eta materialen krisiaren ondorioak ikusten ari gara. Sistemaren iraupenerako funtsezko baliabide naturalen mugak agerian geratu dira (petrolioak, ikatza, uranioa, gas naturala, etab.). NBEko klima aldaketari buruzko adituen Panelak (IPCC) esan du klimaren kolapsoa saihesteko modu bakarra dela betiereko hazkundea oinarritzat duen edozein eredutik aldentzea. Horrenbestez, mikrotxipen eskasia soilik kasu bat da; eredu ekonomiko eta soziala errotik aldatzeko neurri gogorrek berehala hartu ezean halakoak gertatuko dira ezinbestean.
- e) Aipatu den guztia merkataritza-gerra eta lehia geopolitiko batekin batera ari da gertatzen; bi potentziak munduko merkaturaren hegemonia lortu nahi dute, eta Europa hor ez da lehiatzen ari. Txina krisitik indartuta aterata da, eta AEBk munduko ekonomian nagusi izaten jarraitzen dute. Haatik, ez litzateke harriztekoa izango urte gutxiren buruan herrialde asiarrak mundu mailako hegemonia eskuratzea, planeta guztian zehar hedatzen ari baita. Hegemonia hori lortzeko teknologian lidergoa behar du, eta honetan AEBk oraingoz abantaila dute. Langile-klaseak aurre egin beharreko errealitate berri hau aipatutako faktoreek taxutzen dute.


1.1. Europa

Europa ez dago merkataritza gerratik eta gatazka geopolitikoetatik kanpo. Pandemiaren ondorioei aurre egiteko eta lehia teknologikoan atzean ez geratzeko, europar erakundeek emandako erantzuna Next Generation funtsak izan ziren. Hauek, beste batzuetan esan izan dugun legez, datozen urteetako politika ekonomikoa baldintzatuko dute, eta korporazio handien mesederako izango dira. Hala ere, Europar Batasuneko (EB) ekonomia ez dago bere unerik onenean; hona hemen zenbait datu:

- BPG

Europar Batasuneko datuak analizatuz gero, ikusten dugu bigarren hiruhilekoan hazkundea %2,1ekoa izan zela lehenengo hiruhilekoarekiko (orduan %0,1 uzkuritu zelarik). Urte arteko saldoak adierazten du BPG igoera %13,8koa izan zela. Espainiar estatuan, hainbat erakundek aurreikuspen ederrak egin zituzten arren, iraileko zifren berrikuspenek, hazkundea lehen hiruhilekoarekiko %1,1ean kokatu zuen, eta urte artekoa %17,5ean. Beraz, zenbakiak hasieran iragarritakoa baino txikiagoak izan ziren. HEHko bilakaerari erreparatuz gero, egoera hobea da Estatuakoaren aldean. EAEn lehen hiruhilekotik bigarrenera BPG %2,2 hazi zen, eta Nafarroan, berriz, %2,6.

1. grafikoa: BPGaren hiruhilekoarteko bilakaera



Iturriak: Eurostat, EIN, Nastat eta Eustat


Esan dugun moduan, eskaintzaren shockak hazkundea eragozten ari dira, lehengaiak edo ekoizpenerako behar diren materialak falta direlako; honek botila-lepoak sorrarazten ditu eta, hurrengo atalean ikusiko dugunez, zuzenean eragiten dio enpleguari. Arazo honek Europan hainbat eremutan du eragina. Lehena mikrotxipen krisia izan zen; honek automobil lantegiak geldiarazi zituen, baita Euskal Herrian ere, milaka langileri ere eraginez. Baina beste fabrika asko ere hornigairik gabe gelditzen ari dira. Beraz, mundu mailako sistema logistikoaren arazoa sistema kapitalista goitik behera ari da kolokan jartzen.

Esan beharra dago hornigai-katearen krisi hau ezin zaiola soilik pandemiari egotzi; krisia Covid-19a agertu aurretik existitzen zen eta ondorioz, hau arazo estrukturala izan daiteke, kapitalismoaren egungo dinamikak hankaz gora jar ditzakeena.

- Inflazioa

Hazkundea urria da, baina aldi berean inflazioa maila oso altuan dago. Prezioen bilakaerak iaz baino tasa askoz handiagoak ditu, EBZk markatutako %2ko mailatik gora. Abuztuan EBko urte arteko igoera %3,2koa izan zen; espainiar Estatuan KPI %4ra iritsi zen (bederatzigarren igoera jarraia eta 2008tik izan den handiena). Inflazio honen adierazgarri da argia garestitu izana. Arrazoi nagusia prezioak finkatzeko sistema da, gas naturalaren prezioaren igoerak eraginda. Prezio igoera lehengaietan ere gertatu da eta hau azken produktuan antzematen da. Halaber, itsas garraioa ere modu esponentzialan garestitu da; horrek elikagaien eta oinarritzko produktuen igoera orokorra dakar. Garestitze orokor honek oinarritzko saskiari eragiten dio eta, ondorioz, baita langile-klaseari ere, prezioak soldatak baino gehiago ari baitira igotzen. Beraz, eros-ahalmenaren debaluazioa ematen ari da.

2. grafikoa: Inflazioaren aldakuntza espainiar Estatuan eta EB-27an



Iturriak: Eurostat eta EIN

Zifrok jende xeheari eragiten diete bereziki baina finantza-merkatuak ere kezkatuta daude, *tapering* arriskua dela eta (EBZk pizgarriak erretiratzea). Izan ere, inflaziorako joera luzatuz gero, logikoa litzateke EBZk bere politika hedakorrak moteltzea, interes-tasak igoz. Gogora dezagun pandemiari aurre egiteko EBZk diru-pizgarri berriak ezarri zituela, besteak beste eskaria suspertzeko. Egia da ere 2012tik aurrera diru-politika hedakorra egiten ari zela eta berau 2015eko martxoan areagotu egin zela Draghi planarekin, aktiboen erosketara masiboaren bitartez.

Haatik, EBZk pizgarriak bat-batean erretiratuko balitu, eskaintzak are astindu handiagoa jasango luke eta beste krisi bat gerta liteke. Beraz, EBZk sarri esan du inflazio hau iragankorra dela eta bere arrazoa abaguneari lotuta dagoela; datozen hileetan egoera eta inflazioa normaltasunera itzuliko omen dira. Hain zuzen, EBZk dio inflazioa %2 ingurura jaitsiko dela 2022an, eta %1,5era 2023an. Beraz, ez dirudi Europako diru-politika aldatzekotan denik, prezioen bilakaera edozein dela ere. Hala ere, ahots ugari EBZren iritzia zalantzan jarri dute; Munduko Bankuaren lehendakariordeak duela gutxi esan du bere iritziz inflazioa ez dela iragankorra, eta iraun lezakeela.


• Zorra

Aztertu beharreko azken adierazlea zorra da. Zor publikoa zein pribatua hazten ari dira. Estatuaren zorrak hazkunde esponentziala du, sarreren jaitsieraren ondorioz, baina batez ere gastua asko gehitu delako. Aldiz, enpresena eta familia gorantz doa, pandemiaren krisiagatik eta hipoteka gehiago kontratatu direlako.

Zorraren arazoa pandemia aurretik ere hor zegoen: defizit eta zor publikoa oso maila altuan zeuden azken urteetan ekonomia hazkunde fasean egon den arren.

Espainiar Estatuaren zorra BPGren %95,5ekoa zen 2019 bukaeran. Orain %122,8raino igo da, Europako Egonkortasun eta Hazkunde Ituna etenda zegoela eta gastua handitu ahal izan delako. Zorraren arazoa ez da epe laburrean ikusten, 2022an ere ituna etenda egongo baita. Alabaina, 2023an defizit eta gastu-mugaren arauak berrezarriko balira gastu publikoa zeharo uzurtuko litzateke eta, halako kasuetan ohikoenez, zerbitzu publikoek eta beharrik handiena dutenek pairatuko lukete gehien.

3. grafikoa: Zor publikoaren bilakaera espainiar Estatuan



Iturria: Espainiako Bankua

Kontuan izan behar da Next Generation EU programako dirua jasotzean zorra hazi egingo dela eta gorakada horri kutxa publikoek egin beharko diotela aurre. Gainera, ikusten ari garen moduan, hainbat inbertsio eta erreforma egin behar dira funtsak jasotzearen truke, Europak espainiar Estuari Europar Seihiilekoan egin dizkion gomendioen baitan. Marko horretan estatu kideen aurrekontu- eta ekonomia-politikak doitzen dira. Espainiari dagokionez, besteak beste, zor publikoa jasangarria izan dadin eta kontuak oreka ditzan premiatzen dute, baita pentsio-sistema jasangarria egitera ere. Hau da, plan horretatik jasotzen den diruarekin batera erreformak ezarri behar dira eta honek langile-klasearen eskubideen murriztea ekarriko du.

• **Aurreikuspenak**

Esan duguna gorabehera, aurtengo eta datorren urterako aurreikuspen ofizialak positiboak dira, adierazleen aldetik behintzat. Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA) irailean argitaratu eman ditu 2021 eta 2022rako itxiera aurreikuspenak; 2021ean munduko BPG %5,7 haziko dela diote, eta %4,5 2022an. Mundu mailako datuak alde batera utzita, herrialdeka bilakaera ezberdina izango da. India eta Txina haziko dira gehien (%9,7 eta %8,5, hurrenez hurren). Nazioarteko erakundearen arabera, Eurogunea %5,3 haziko da eta honen barnean espainiar Estatua gehien (%6,8). Baina beste erakunde batzuen aurreikuspenak ez dira hain baikorrak. Espainiar Gobernuak %6,5eko hazkundea espero du; Espainiako Bankuak, %6,3koa, eta CEPREDEK %6koa baino ez. Edonola ere, kontutan izan behar da aurreikuspen hauen oinarria izan zela Estatistika Institutu Nazionalak (EIN) BPGren hirugarren hiruhereneko egin zuen aurrerapena: gogora dezagun %2,8koa izan zela. Haatik, EINK % 1,1eraino murriztu zuen hiruhereneko hazkundea eta beraz, litekeena da hazkundea aurreikusitakoa baino txikiagoa izatea.

Hego Euskal Herriari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren kalkuluen arabera aurtengo hazkundea %6,7koa izango da, urte hasieran espero zuena baino askoz murriztagoa. Gainera, Eustaten hirugarren hiruhereneko aurrerapenaren datuen arabera, EAeko ekonomia %0,8 baino ez zen hazi aurreko hiruherenekoaren aldean, honek aurreikusitakoa baino igoera txikiagoa suposatzen du eta moteltzea dakar, gainera oso zaila egiten du aipatutako kopurura iristea. 2022rako igoera %6,4ra mugatuko da. Nafarroako Gobernuaren datuek diote BPG aurten %6,5 haziko dela, eta 2022an %5.

1. taula: 2021 eta 2022rako aurreikuspenak

| | 2021 | 2022 |
|-------------------|-------------|-------------|
| Mundua | %5,7 | %4,5 |
| Espainiar estatua | %6,8 | %6,6 |
| Nafarroa | %6,5 | %5 |
| EAE | %6,7 | %6,4 |

Iturriak: ELGA, Eusko Jaurlaritzeta eta Nafarroako Gobernua

• **Ondorioa**

Laburbilduz, esan genezake hazkunde kopuruak ez direla oso positiboak: inflazioa puztuta dago; hornigaiaren krisia eragin larriak izaten hasi da; EBZk datorren egoerari aurre egiteko ez dauka beste tresnarik; zorra hazten ari da, etab. Faktoreok eragiten dute egoera batzuek saldu nahi duen bezain oparoa ez izatea. Horren eraginez, sarreran esan dugun legez, udazkenean eremu ekonomikoan ziurgabetasuna izango da nagusi.


2.
Enpleguaren adierazleak

Bigarren hiruhereneko eta azken hilabeteetako datuek hobera egin dute aurrekoekin alderatuta; 2020ko adierazleen beherakada kontuan hartuta espero zitekeen. Hala ere, egoerak okerragoa izaten jarraitzen du 2020ko lehen hiruherenekoarekin alderatuta. Jarraian, enpleguaren adierazleek izan duten bilakaera aztertzen da: biztanleria enplegatua, kontratazioa, langabezia eta aldi baterako lan-erregulazioak. Horretarako, bigarren hiruhereneko Biztanleria Aktiboaren Inkesta dugu, Estatistika Institutu Nazionalak (EIN) argitaratua; bai eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak (EEZP) eskaintzen dituen zifrak ere.

2.1. Biztanleria enplegatua

Aurreko hiruherenekoaren aldean 18.700 enplegatu gehiago zeuden Hego Euskal Herrian. bi lurraldeetan eman zen enpleguaren hazkunde hori. Horrela, EAEn 914.100 pertsona okupatu zeuden, eta Nafarroan 283.700. Enpleguak gora egin bazuen ere, pandemia hasi aurreko mailara iristeko, 16.500 enplegatu gehiago beharko lirateke lurralde osoan. Eta konparazioa 2019ko hiruhereneko berarekin egingo balitz, ondorioak are okerragoak dira, 41.000 pertsona gutxiago egon baitziren lanean azken hiruherenekoan. Gainera, adierazi behar da oraindik ere milaka pertsona daudela aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente baten eraginpean eta lanean ari ez diren arren, biztanleria enplegatuaren barruan zenbatzen dira.

4. grafikoa: Okupazioaren bilakaera HEHn




Iturria: EIN

Datuak generoaren arabera aztertuz, zertzelada bi: 13.600 emakume enplegatu gehiago dago aurreko hiruhilekoaren aldean, eta datuak positiboak dira 2020ko lehen hiruhilekoarekin alderatuz. Hala ere, gizonek baino 36.000 emakume enplegatu gutxiago zeuden oraindik, nahiz eta 83.000 emakume gehiago egon lan egiteko adinean.

Sektore ekonomikoei dagokienez, bigarren hiruhilekoan enplegatuen kopuruak gora egin zuen sektore guztietan, eraikuntzan izan ezik. Sektoreei dagokienez okupazioan gertatu denaren errepasoa egiten badugu, EAEn eta Nafarroan industriak duen pisuak ahalbidetu zuen Covid-19ak enpleguan eragindako krisiaren inpaktua Espainiako Estatuan baino txikiagoa izatea. Izan ere, industrian okupazioak behera egin zuen neurri txikiagoan konfinamenduaren hilabete gogorrenetan, eta hiruhilekoz hiruhileko okupazioa handituz joan da. Pandemia hasi zenetik, 19.300 pertsona gehiago daude industria sektorean. Zerbitzuen sektorean oso bestelakoa izan da: sektore ezegonkorragoa eta prekarizatuagoa da eta gainera pandemian zehar funtsezkoak ez ziren jarduera gehiago eten behar izan ziren. Hala, hirugarren sektorea izan da kaltetuena eta 27.500 langile gutxiago zenbatu dira. Azken hiruhilekoan, egia da zertxobait errekeratu dela, egoerak hobera egin duelako.

5. Grafikoa: Okupazioaren aldaketa 2020ko 1. hiruhilekoaren aldean, sektoreka



Iturria: EIN

2.2. Kontratuak

Behin-behinekotasuna eta partzialtasuna dira gure enpleguaren prekarizazio-maila baldintzatzen duten bi alde. Covid-19ak agerian utzi du krisi-garaietan horrelako lan prekarioak direla lehendabizikoak suntsitzen eta, aldi berean, lehenak errekeratzen. Murrizketak kentzeak eta udaberriko garaiak enplegatuen kopurua handitzea eragin zuten, betiere pandemia aurreko mailatik urrun. Hala ere, langile berri askok aldi baterako kontratuak izan zituzten eta ziklo ekonomikoarekiko sentikorrak izan ziren.

Jarraian, bigarren hiruhilekoan enplegatutako pertsonen egoera zein izan den ikusiko dugu, kontratu motei dagokienez. Bestalde, aurten egindako kontratuak aztertuko ditugu (urtarriletik abuztura, barne).

• Lanaldi partzialeko kontratuak

Biztanleria enpleguaren %15,9k lanaldi partzialeko kontratua izan zuen bigarren hiruhilekoan HEHn. Pandemia hasi zenetik izandako bilakaerari erreparatu badiogu, suntsitu ziren lehen enpleguak lanaldi partzialeko enpleguak izan zirela ikusiko dugu. 2020. urtearen amaieran 23.000 enplegu suntsitu ziren; berriz, lanaldi osoko enplegatuen artean, ez zen inolako murrizketarik izan. Aurreko puntuan adierazi den bezala, bigarren hiruhilekoan enplegua suspertu egin zen, baina errekerazio hori lanaldi partzialeko enplegatuen artean gertatu zen. Hau da, 18.700 enplegetatik 11.300 izan ziren lanaldi partzialekoak.

Lanaldi partzialeko kontratua duten gizonen eta emakumeen arteko aldea oso handia da oraindik. HEHn, bigarren hiruhilekoan, lau emakumetik batek (%25,6) izan zuen horrelako kontratu bat; gizonen kasuan, berriz, hamalautik batek (%6,9). Neurri handi batean, emakumeen lanaldi partziala ez da borondatezkoa izaten.

Lanaldi partzialeko kontratua duten enpleguen egoera aztertu ondoren, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren datuen bidez, urte honetan (abuztua barne) egindako hasierako kontratuak aztertuko ditugu. Datuen arabera, hasierako lan-kontratuaren %34,1 lanaldi partzialekoak izan ziren, %5,2 Nafarroakoak eta %38 EAEkoak. Kontratu partzialen datuak bereiziz gero, agerian geratzen da emakumeek lan-munduan jasaten duten diskriminazioa. Gizonen eta emakumeen arteko aldeak konpondu beharrean, datuek erakusten dute emakumeei egindako lanaldi partzialeko kontratuaren ehunekoa %46,2 izan zela, gizonena %22,6 izan zen bitartean.

2. Taula: Kontratuak

| | Lanaldi partzialeko kontratuak 2. hiruhilekoan | Urtarriletik abuztura egindako lanaldi partzialeko hasierako kontra. |
|-----------|---|---|
| Emakumeak | %25,6 | %46,2 |
| Gizonak | %6,9 | %22,6 |
| Totala | %15,9 | %34,1 |

Iturria: EIN eta EEZP

• Aldi baterako kontratuak

2.1. atalean aipatu dugun enpleguaren igoera aldi baterako enplegutik dator. Esan bezala, bigarren hiruhilekoan, 18.700 enplegatu gehiago izan ziren; kontratazioaren datuek erakusten dutenez, aldi baterako kontratuak zituzten pertsonak 19.000 gehiago izan ziren. Kontratu gehienak emakumeei egin zitzaizkien, 13.000, 6.300en aldean. Ondorioz, gizonen eta emakumeen artean zegoen aldea handitu egin zen bigarren hiruhilekoan.

Bigarren hiruhilekoan, soldatapekoen behin-behinekotasun tasa %23,5ekoa izan zen Hego Euskal Herrian; horrek esan nahi du HEHn 244.200 pertsonak izan zutela horrelako kontratua.


Urtea hasi zenetik, hasierako 720.289 kontratu egin dira HEHn, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren arabera, eta horietatik %95,2 aldi baterakoak izan dira. Adierazi dugu HEHn egindako aldi baterako kontratuaren ehunekoa oso handia dela. Datuok berresten dute ez dirudi gauza norabide onean doanik. Ekonomia atzeraldiko hilabeteen ondoren berriro aktibatzen denean sinatu diren kontratuaren prekarizazio maila altua erakusten dute datuek. Hala ere, prekarizazio hori ezin zaio pandemiari bakarrik egotzi, aurreko urtean behin-behinekotasunak eta partzialtasunak antzeko kotak baitzituzten.

2.3. Aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak (ABEE)

Aurreko Egoeraren Azterketaren txostenean adierazi genuen ABEEek garrantzi handia izan zutela enplegu suntsiketa leundu zuten heinean. Aldi baterako lan-erregulazioen bilakaerak beheranzko joera argia erakusten du, ekonomiaren egoerarekin zuzenean lotuta baitaude. Argi zegoen, beraz, egoera ekonomikoa hobetuz gero, aldi baterako lan-erregulazioan sartutako pertsona kopuruak behera egingo zuela.

Gaur egun (iraileko azken eguneko datuak) 11.335 pertsona daude aldi baterako lan-erregulazioan Hego Euskal Herrian, eta horietatik %55 emakumeak dira. Urtearen hasieran 47.711 pertsona ziren, baina horiek, hilabetez hilabete, murrizten joan dira, gaur egungo kopurura iritsi arte. HEHko datua ez dago jarduerasektoreen arabera bereizita, bai ordea Estatukoa: egoera horretan ostalaritzan dago oraindik ere jende gehien, bidai agentzia, aisi-jarduera eta txikizkako eta handizkako merkataritzarekin batera.

6. grafikoa: aldi baterako lan-erregulazioen bilakaera HEHn




Iturria: Lan eta Gizarte Ekonomia Ministerioa

Eusko Jaurlaritzak iazko martxoaz geroztik gertatzen ari diren aldi baterako lan-erregulazioak argitaratzen ditu. Hala ere, informazio horrekin ezin dugu azterketa zehatzik egin, altak bakarrik agertzen baitira, eta ez horien iraupena. Nabarmendu dezakegun gauza bakarra da azken asteetako espediente gehienak industria-sektorean gertatzen ari direla, eta hori, batez ere, hornidura krisiaren ondorioz gertatzen ari dela.

2.4. Langabezia

INEren datuen arabera, bigarren hiruhilekoko langabezia-tasa %10,09koa izan zen (%10,3 Nafarroan eta %10,02 EAEn). Hau da, puntu bateko jaitsiera eman zen lehenengo hiruhilekoarekin alderatuta. Datu absolutuetan, 134.400 langabe egon ziren, aurreko hiruhilekoan baino 12.800 gutxiago (%8,7). Gogora dezagun hala ere, iazko lehen hiruhilekoan 115.400 langabe zeudela, bigarren hiruhilekoan baino 19.000 pertsona gehiago.

7. grafikoa: langabeen bilakaera HEHn



Iturria: EIN

Generoari erreparatzen badiogu, emakumeen artean 5.700 langabe gutxiago egon ziren azken hiruhilekoan, baina 2020ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta, 8.000 emakume gehiago. Gizonen artean, 7.100 langabe gutxiago egon ziren, eta pandemiaren aurreko hilabeteekin alderatuta, 10.900 pertsona gehiago.

Emakumeen eta gizonen artean langabezia-tasan dauden aldeak murriztu egin dira Covid-19aren krisia hasi zenetik. Izan ere, enpleguaren suntsiketak gehiago kolpatu ditu gizonak. Aurreko urteko lehen hiruhilekoarekin alderatuta, gizonen langabezia-tasa %1,7 igo zen, eta emakumeen tasa, berriz, %1,1. Langabeziaren arrakala murrizteak ez dakar, inola ere, berri onik. izan ere, aldea ez da murriztu emakumeen okupazioa handiago delako, baizik eta gizonen langabezia gehiago handitu delako. Arrakala hori murriztu arren, emakumeen artean langabezia handiagoa da oraindik ere: %10,3koa da, gizonen dagokiena %9,9 den bitartean.

2.5. Biztanleria gaztea

Behin eta berriz errepikatu dugu langile-klasearen barruan biztanleria gaztea dela krisia gehien pairatzen ari dena. 2008an horrela izan zela ikusi genuen, eta, oraindik erreperatu gabe, gazte jendeak beste kolpe gogor bat hartu du Covid-19ak eragindako krisiarekin.

Biztanleria aktibo gaztea (16 eta 24 urte bitarteko pertsonak) berreskuratu egin zen bigarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoen aldean: 84.400ko zifrara iritsi da. Okupazioari dagokionez, bigarren hiruhilekoan 54.900 gazte okupatu egon ziren HEHn, aurreko hiruhilekoan baino 10.200 gehiago. Pandemiaren aurreko datuekin alderatuz gero (2020ko 1. hiruhilekoa), igoera txiki bat dago; hala ere, konparazio egokia hiruhileko berarekin egin beharko litzateke. Izan ere, behin baino gehiagotan adierazi den bezala, gazteen enplegua aldi baterako enplegua da, eta, beraz, bigarren eta hirugarren hiruhilekoetan okupazio handiagoa izaten da.


Langabeziari buruzko datuek gure lan-munduaren egiturazko arazoa erakusten dute. Bigarren hiruhilekoko langabezia-tasa %35ekoa izan zen HEHn. EAEn gazteen langabezia % 37,9raino igo zen, eta Nafarroan pixka bat txikiagoa izan zen, % 26. Gazteen langabezia egiturazko arazo bat da eta krisi-garaietan areago nabarmentzen da.

2.6. Europa

HEHko errealitatea Europako herrialdeekin konparatzean, grafikoetan ikus daitezke azken postuak okupatzen ditugula. Hala, behin-behinekotasunari dagokionez, hirugarren maila altuena dugu HEHn (%23,8), Espainiako Estatuaren (%25,2) eta Herbehereen (%27,3) atzetik. Antipodetan, Estonia (%2,2) eta Lituania (%2,3) daude. Europar Batasuneko batez bestekoa % 13,4 izan zen, Hego Euskal Herrian baino 10,4 puntu gutxiago.


Langabezia-tasaren alderaketak ere ez du leku hobean uzten HEH. Europar Batasuneko langabezia-tasaren batez bestekoa %7,8koa izan zen eta HEHn tasa hori handiagoa izan zen, %10,1koa. Langabezia gutxien izan zuen herrialdea Txekiar Errepublikak izan zen (%3), eta jarraian Polonia (%3,5) eta Alemania (% 3,6). Aldiz, mailarik txarrena izan zuen herrialdea Grezia izan zen (%15,8) eta Espainiako Estatuak taulako azken aurrekoa izan zen (% 15,3).

8. grafikoa: 27-EBko eta HEHko behin-behinekotasun-tasa



Iturria: Eurostat eta EIN


9. grafikoa: EB-27ko eta HEHko langabezia-tasa



Iturria: Eurostat eta EIN

Europarekin alderatuta, gazteen langabezia-tasa ere bereziki kezkarria da. Europako estatuen egoera langabezia-tasa orokorrarenaren oso antzekoa da. Hala, EBko gazteen langabezia-tasa %18,7an kokatu zen, Alemaniak (%7,1) eta Txekiak (%7,2) izan zuten mailarik baxuena, beste muturrean Grezia (%38,4) eta Espainiako Estatua egon ziren. Esan bezala, gazteen langabezia-tasa %35ekoa izan zen HEHn.

10. grafikoa: EB-27ko eta HEHko gazteen langabezia-tasa



Iturria: Eurostat eta EIN

PUNTAKO GAIA

Pentsioen erreforman murrizketarik ez egiteko, BEM ez onartzea eskatu die ELAk EAJri, EH Bilduri eta Podemosi

Aurrekariak

Abuztuaren amaieran, Espainiako Gobernuak pentsioak erreformatzeko lege-proiektua onartu zuen. Honek gobernuaren, patronalaren eta CCOO eta UGTren arteko elkarrizketa sozialaren esparruan lortutako akordioa jasotzen du. Une honetan proiektua tramitazio parlamentarioan dago eta alderdi politikoei zuzenketak aurkezteko epea zabalik dago Kongresuan irailaren 23ra arte.

Pentsioak erreformatzeko lehen blokea da proiektua, Toledoko Ituna eta Espainiako gobernuak Europako Batzordeari Europako funtsak eskuratu ahal izateko aurkeztutako Plana betez. Europar Batasunarekin hartutako konpromisoak pentsioetan zenbait murrizketa bi fasetan aplikatzea ezartzen zuen. Lehenengoa 2021 amaitu baino lehen onartu beharko litzateke. Bigarrena, 2022an.

ELAk pentsioei buruzko akordioaren balorazioa egin zuen. Akordioa hark honako neurriak proposatzen zituen:

- Iraunkortasun Faktorea Belaunaldien arteko Ekitate Mekanismoarekin ordezkatu eta txeke zuri bat eman gobernuari etorkizuneari pentsioak murrizteko. Mekanismo berria azaroaren 15erako erredaktatua egon behar bada ere, argi dago Belaunaldien arteko Ekitate Mekanismoak etorkizuneko murrizketa guztiak ahalbideratuko dituela.
- Erretiro aurreratuan murrizketak, koefiziente murriztaileak aldatuz eta ez oinarri arautzailean aplikatuz, pentsioan baizik.

- Pentsioen igoera, KPIren arabera (2018az geroztik aurrekontuetan egin da urtero eta orain 5 urtera ezarri den neurria da, eta, ondoren, egoera berriro ebaluatuko da).

Erreforma hori 2011koen eta 2013koen jarraipena da. 2011ko erreformak, 2021ekoaren eragile berberak sinatutakoa, pentsioa eskuratzea zaildu zuen, ohiko erretiro-adina 65 urtetik 67ra atzeratuz, erretiroa hartzeko behar den kotizatutako denborarekiko baldintza gogorragoak ezarriz eta oinarri arautzaileak kalkulatzeko kontuan hartu beharreko urte kopurua handituz. Gainera, Iraunkortasun-faktorea sartu zuen, 2027an indarrean jartzeko.

Rajoyren gobernuaren 2013ko lehen erreformaren ardatza erretiro aurreratua eta partziala aldatzea izan zen: bi kasuetan, adina atzeratu zuen eta eskatutako kotizazio-aldiei buruzko baldintzak gogortu zituen, aplikatu beharreko koefiziente murriztaileak handituz. Urte horren amaieran onartutakoak KPIren igoeraren bermea kendu zuen eta Jasangarritasun Faktorea indarrean sartzeko epea aurreratu zuen.

Erreforma horiek eragin zituzten murrizketa larri eta gogorren aurrean, ELAk, beste sindikatu eta gizarte eragile batzuekin batera, mobilizazio eta greba orokorrak egin ditu, hala nola 2020ko urtarrilaren 30ekoa.

Ondorioak eta proposamenak

Gaur egun, eta Pentsioen Legearen proiektuaren izapide parlamentarioaren aurrean, ELAk alderdi politikoei eskatu die beren zuzenketetan aplikatu nahi diren murrizketak errefusatu ditzatela eta gai honekin mobilizatzen ari garen sindikatu eta gizarte eragileen eskaerak bere egin ditzatela.

Hala, eta zehazki, alderdi politikoen zuzenketetan gutxienez gai hauek sartu beharko lirateke:

- Erretiro aurreratuari dagokionez, lege-proiektuan jasotzen diren murrizketak kentzea.
- Iraunkortasun faktorea indargabetzea eta haren ordezkari inolako mekanismorik erabiltzea ez onartzea.

- Erretiroa hartzeko adina 65 urte izatea.
- Gutxieneko pentsioa 1.080 eurokoa izatea.
- Pentsioa kalkulatzeko irizpideak 2011ko erreformaren aurretik ezarritako urte kotizatuen kopurua kontuan hartuta finkatzea eta 2013ko erreformaren aurreko irizpideen arabera, erretiro aurreratua eta partzialaren kasuan.
- Pentsioak KPlaren arabera eguneratzea, denbora-mugarik gabe, eta azken hamarkadan galdutako erosteko ahalmena berreskuratzea.
- Pentsioen sistema publikoa indartzea. Pentsioen sistema pribatua ez da aukera egokia: lehenik eta behin, biztanle gehienek ez dute aurrezteko gaitasunik, eta, beraz, aukera hori gutxiengo dirudunentzat soilik izango litzateke; bigarrenik, sistema pribatuak bermatzen du hura kudeatzen duten finantza-erakundeen negozioa, baina ez dute bermatzen ez prestazio- ez errentagarritasun-mailarik.
- Euskal Herriko pentsio-sistema erabakitzeko ahalmen legegile osoa izatea.

ELAk bilerak eskatuko dizkie EAJri, EH Bilduri eta Podemosi, indar politiko horiek gure gogoeten partaide izan daitezen. Une garrantzitsu honetan, politikak erabakiko du pentsiodunen etorkizuna, oraingoena zein etorkizunekoena.